

auzoaz auzo • AUZOZ AUZO • AUZOZ AUZO •

amara berri

Festa giroa Ilunben

asteburu honetan jai giroa izango dugu Amara Berrin Ilunbe elkartearen hamargarren urteurrena dela eta. Ostiralean hasiko dira ospakizunak haurrentzako hainbat jolasekin eta txokolata mundial batekin. Ondoren, trikitixarekin batera, buruhandi eta erraldoiak ibiliko dira kaleetan zehar.

Larunbatean berriz, pala txapelketa egingo da Loiolako frontoian goizeko bederatzietan hasita. Eguerdian berriz, haurrek marrazteko trebetasuna azaldu ahal izango dute. Ordubatak aldera, Trintxerpeko Ilunbe musika-bandak eskainita kontzertu eder bat entzuteko parada izango dugu.

Bazkal ondoren mus txapelketa izango da eta zazpiak aldera, nazioarteko marmitako txapelketa hasiko da. Bertan, Juan Mari Arzak sukaldaria epaimahaian izango da.

AITZIBER GURUTZEAGA -ELI BELAUSTEGI



Makinak Irun plazan

Irun plazako obrak berehala hasiko dira. Egun hauetan hainbat langile ingurua garbitzen ari da. Lur mugimenduekin hasi eta zuloak egiteko makina ikaragarriak noiz agertuko zain daude. Beraz, laster hasiko dira supermerkatua eraikitzen.

herrera

Gimnasia ikastaroarekin negurako prest

herrerako Auzotegin urtero negurako zenbait ekintza antolatzen da eta horietako bat gimnasia izaten da.

Aurtengoan jadanik hasiak dira gimnasia klaseak eta esan daiteke inoiz baino talde handiagoa biltzen dela gimnasia egiteko asmoz astelehen eta azteazkenetan arratsaldeko 19.30etatik 20.30etara.

Beti ere gimnasia praktikan jartzen duten gehienak emakumeak dira. Po-

zez hartu dugu informazio hau, horrela konproba baitezakegu Herrerako biztanleek ardura hartu dutela behintzat beraien osasun eta gorputzaz.

Sporting futbol elkartearen bilera nagusia

herrerako Sporting Futbol Elkartea datorren astelehenean, hilak 19, urteroko Bilera Nagusia egingo du. Bilera arratsaldeko 19.30etan hasiko da lehen deialdian, hamabost minutu beranduago bigarren deialdia izango da eta 20.00etan hirugarren

eta azken deialdia.

Bilera, Sportingek San Luis plazaren 8.aren behean duen lokalean izango da eta honako gaiak aztertuko dira: aurreko bileraren aktaren irakurketa eta onarpena; 1993-1994 futbol denboraldiaren azterketa, bai kirol mailakoa, bai ekonomikoa, Zuzendaritza Batzordeko partaideen aurkezpen eta onarpena; 1994-1995 denboraldirako aurrekontu ekonomikoaren onarpena eta azkenik, galdera eta eskariei egingo zaie tarte.

LARRAITZ GARMENDIA (TLFNA:39 12 67)



Madrid hiribidea, 24 •
tfnoa.: 47 00 01 DONOSTIA

SOINU ALAI

AKORDEOI ESKOLA- SOLFEOA

INSKRIPZIO ORDUAK
arratsaldetan 5etatik 7tara

Kromatika eta trikitixa